



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza

83. dokumentua

2022ko martxoa

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurune Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Turismo
y Medio Rural

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza	4
2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza	4
2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina	6
2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza	9
3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera	11
3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia	11
3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra	12
3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak	14
3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak	17
4. Emakumea eta bititza osoko ikaskuntza	19
4.1. Bititza osoko ikaskuntzaren definizioak	19
4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan	20
4.3. Ez ikasteko arrazoiak	23
4.4. Emakumeen eta gizonen posizioa, alderatuta	25
5. Ondorioak	27
5.1. Laburpena: emaitza nagusiak	27

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoako emakumeen talentuaren balantzea aurkeztea da lan-dokumentu honen helburua. Emakumeen prestakuntzaren eta ikasketen gainean gaur egun eskuragarri dagoen informazioaren panoramika bat da, hainbat erakundek landuko informazioa oinarri hartuta.

Aurkeztutako emaitzak hauei buruzkoak dira:

- Pertsonak eta eskuratutako ikasketa-maila (generoaren eta adinaren arabera) Gipuzkoan, Eustatek egina.
- Lanbide-heziketako eta unibertsitateko sistemetan ikasketak amaitutako pertsonak, Lanbidek egina, eta EAERI dagokion informazioa.
- Hezkuntza-uzte goiztiarra (generoaren arabera), Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioak egina, eta EAERI dagokion informazioa; halaber, erreferentziazko herrialdeen taula batekin alderatuz aztertu da EAERen posizioa.
- Eta amaitzeko, Gipuzkoako helduen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko inkesta, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak (GFA) egina.

Txostena egiteko unean eguneratutako informazioa izan da oinarri kasu guztietan, eta emakumeen kolektiboak gizonekin alderatuta duen posizioari buruzko datuak aurkeztea izan da ardatza. Hala, hurbilketa bat egin da lurraldeko emakumeek duten talentura, haien hobekuntza-ibilbidera eta, zalantzarik gabe, aurrera begira dauden erronketara, esaterako, STEM eremuetan emakumeen presentzia handiagoa izatea.

2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza

2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza

Gipuzkoako emakume helduen prestakuntzak hobetzen jarraitzen du

Azken hamarkadan baieztatu egin da Gipuzkoako emakumeek eskuratutako prestakuntza mailak gora egiten jarraitzen duela etengabe: Gipuzkoako emakume helduen¹ erdiek (% 54,0) hirugarren mailako ikasketak dituzte; 2010ean % 42,7 ziren (+11,3 puntu).

- Gipuzkoako emakume helduen heren batek unibertsitateko goi-mailako ikasketak eta erdi-goi mailako ikasketak ditu (% 34,3). 2010arekin alderatuta, hobekuntza nabarmena da (+6,7 puntu).
- Gipuzkoa hamar emakume heldutik bik (% 19,7) lanbide-heziketa du. Talde honen bilakaera ere positiboa da azken hamarkadan (+4,6 puntu).

1. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa-maila. 2010 eta 2020

25-74 urteko emakumeak

	2010		2020		Aldea
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	
Ikasketa maila					
Lehen mailatik behera	5.874	2,5	3.479	1,5	-2.395
Lehen mailako ikasketak	86.465	36,7	63.093	26,7	-23.372
Bigarren mailako ikasketak	42.744	18,1	41.998	17,8	-746
Lanbide-heziketa	35.617	15,1	46.541	19,7	10.924
Erdi-goi /goi-mailako ikask.	65.190	27,6	80.966	34,3	15.776
GUZTIRA	235.890	100,0	236.077	100,0	187

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat


¹ Azterketa 25-74 urtekoen taldera dago mugatuta; horiek definitu dira herritar heldu gisa, horiek dira bizitza osoko ikaskuntzaren xede.

“Belaunaldiz belaualdi” hobetu da emakumeen hezkuntza-maila. Hala, ikasketa orokorrak dituzten herritarren kopuruak pisua galdu du kontuan hartutako aldian, baina haien ehunekoak adierazgarria izaten jarraitzen du 2020an (% 46,0).

Hala, lau emakumetik batek (% 26,7) lehen mailako ikasketak ditu eta lehen mailako ikasketak amaitu ez dituztenen taldearen pisua oso txikia da (% 1,5). 2010arekin alderatuta, nabarmena da bi talde horien ehunekoak izandako jaitziera (-11 puntu, biak batera kontuan hartuta). Bestetik, emakumeen % 17,8k bigarren mailako ikasketak dituzte. Proporzio hori ia ez da aldatu aintzat hartutako aldian (-0,3 puntu).

1. grafikoa Gipuzkoako emakumeak eta lortutako ikasketa-maila. 2010 eta 2020

25-74 urteko emakumeen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

Gipuzkoako herritar helduek eta, bereziki, emakumeek eskuratutako batez besteko prestakuntza maila hobetu egin dela baieztatzen dute emaitza horiek. Bilakaera horretan zirikusia du adineko pertsonak helduen taldetik (25-74 urte) pixkanaka atera izanak, horiek, orokorrean, prestakuntza maila baxuagoa baitute. Aldi berean, emakume gazteak sartu dira, ibilbide akademiko handiagoa dutenak eta hirugarren mailako ikasketetan gero eta parte-hartze handiagoa dutenak.

Hala, kontuan hartu behar da 2020an 25 eta 74 urte arteko 236.077 emakume heldu daudela Gipuzkoan, 2010ean erregistratutako zifraren antzekoa (235.890 emakume). Baina osaera aldatu egin da: ikasketa orokorrak dituzten emakumeen kopuruak behera egin du (-26.513 emakume), eta, aldiz, gora egin du ikasketa espezializatuak dituztenen kopuruak (+26.700); zifra horiek elkar konpentsatzen dira (+187 emakume).

2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina

Adina, faktore erabakigarria Gipuzkoako emakumeek lortutako prestakuntza mailan

Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza maila asko aldatzen da adinaren arabera. Gazteenek jarraitzen dute ikasketa maila altuena izaten, eta adin nagusieneko taldeek dute prestakuntza mailarik baxuena. Hala,

- Goi-mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituzten 25-34 urteko emakumeen kopurua (18.291) ikasketa-maila hori duten 65-74 urteko emakumeen (4.654) laukoitza da. Gainera, zahartzearen faktorea ere aipatu behar da, izan ere, gazteen taldearen biztanleria nabarmen txikiagoa da (34.842 eta 43.130).
- Eraitza hori bera ikus daiteke LHn, ikasketa-maila hori duten 25-34 urteko emakumeen kopurua (7.492), 65-74 urtekoen (3.787) bikoitza baita.
- Aitzitik, heziketa maila orokorretan adin nagusiagoko taldeak nabarmentzen dira: 65-74 urteko 25.000 emakumek baino gehiagok dituzte lehen mailako ikasketak; 25-34 urtekoen artean, berriz, zifra hori 2.380ra jaisten da. Arrakala hori txikiagoa da bigarren mailako ikasketen kasuan (8.500 eta 6.679).

2. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila, adinaren arabera. 2020

25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Ikasketa maila						
Lehen mailatik behera	630	499	373	515	1.462	3.479
Lehen mailakoak	1.750	6.120	12.534	17.962	24.727	63.093
Bigarren mailakoak	6.679	9.771	7.927	9.121	8.500	41.998
Lanbide-heziketa	7.492	10.442	14.228	10.592	3.787	46.541
Erdi-goi /goi-mailakoak	18.291	24.141	20.929	12.951	4.654	80.966
GUZTIRA	34.842	50.973	55.991	51.141	43.130	236.077

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

Adinaren arabera prestakuntza mailan dagoen arrakala hau azaltzen duten faktoreen artean, pixkanaka derrigorrezko hezkuntza txertatu izana nabarmentzen da², baita derrigorrezko etaparen ondoren emakumeek ikasketetan (hala nola Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) duten parte-hartzea ere, gero eta handiagoa dena -ondorioz, emakume gazteen prestakuntza hobetu egin da-.

² Hezkuntza Lege Orokorrak (1970) ezarri zuen ordura arte etapaka landutako curriculum-ibilbidea (Lehen Hezkuntzako Legea, (1945), Bigarren Hezkuntza Antolatze Legea, (1953)...). Hau da, 60ko hamarkadan jaiotako belaunaldiak dira 6-14 urte artean eskolatzeko eskakizuna eraginkortasunez aplikatu zaien lehen belaunaldiak.

Emakume gazteenak nabarmentzen dira eskuratutako prestakuntzagatik

Atxikitako taulak adin-talde bakoitzak kontuan hartutako ikasketa mailetan duen pisua jasotzen du. Taulan ikus daitekeenez, alde handiak daude emakume helduen banaketan, adinaren arabera:

- Lehen mailako ikasketak baino gutxiago dituzten emakumeen gehiengoa (% 42,0) 65-74 urte artekoak dira. Aldiz, emakume heldu guztiak kontuan hartuz gero, 65-74 urte arteko emakumeen ehunekoa % 18,3ra jaisten da. Talde honen "ordezkaritza handi" hau lehen mailako ikasketetan ere ikus daiteke (% 39,2).
- 55-64 urteko emakumeen taldea lehen mailako ikasketetan duen pisuagatik nabarmentzen da (% 28,5, eta ehuneko orokorra % 21,7). 45-54 urtekoen taldeak, berriz, ordezkaritza handiagoa du LHn (% 30,6), guztizko biztanlerian (% 23,7) baino.
- Bi talde gazteenek pisu handiagoa dute erdi-goi mailako eta goi-mailako ikasketetan (% 22,6 eta % 29,8 hurrenez hurren), guztizko emakumezko biztanleen gainean duten pisuarekin alderatuta (% 14,8 eta % 21,6).

Gauzak horrela, Gipuzkoako emakume helduen adina zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da beheko hezkuntza mailetan duten pisua, eta alderantziz³. Azken hamarkadetan hezkuntzarako sarbidea homogeneousagoa izan da eta, ondorioz, alde hori txikitzen joango dela uste da.

3. taula Adin-talde bakoitzak lortutako ikasketa-mailei egiten dien ekarpena. 2020

25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Ikasketa maila						
Lehen mailatik behera	18,3	14,3	10,7	14,8	42,0	100
Lehen mailakoak	2,8	9,7	19,9	28,5	39,2	100
Bigarren mailakoak	15,9	23,3	18,9	21,7	20,2	100
Lanbide-heziketa	16,1	22,4	30,6	22,8	8,1	100
Erdi-goi /goi-mailakoak	22,6	29,8	25,9	16,0	5,8	100
GUZTIRA	14,8	21,6	23,7	21,7	18,3	100

Letra lodiz, kontuan hartutako hezkuntza mailetan adin-talde bakoitzak egiten duen ekarpen handiena erakusten duten balioak.

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

³ Aintzat hartu behar da immigrazioaren faktorea ere (nazionalizatuak edo ez). Izan ere, posible da prestakuntza maila baxuagoarekin iritsi izana, eta normalean gazteak izaten dira (25-44 urte bitartekoak).

Emakume gazteen erdiek goi-mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituzte

Adin-talde bakoitzak lortutako ikasketa-mailaren banaketak agerian uzten ditu emakume helduen artean dauden belaunaldien arteko aldeak. Hala,

- 25-34 urteko emakumeen erdiek goi-mailako eta erdi-goi mailako ikasketak egin dituzte (% 52,5). Proporzio hori txikiagoa da beste adin-taldeetan (35-44 tartean % 47,4, 45-54 tartean % 37,4 eta 55-64 tartean % 25,3) eta 65-74 urte arteko emakumeen artean hamarretik batek baino ez du ikasketa-maila hori (% 10,8).
- Lanbide Heziketaren kasuan antzeko jokaera ikus daiteke; maila horrek pisu handiagoa du 25-34 urtekoen taldean (% 21,5), 65-74 urtekoen taldean baino (% 8,8). Bestetik, aipatu beharrekoa da 45-54 tarteari dagokiola Lanbide Heziketako ikasketak dituztenen ratorik handiena (% 25,4).
- Adin-talde guztietan antzekoa da bigarren mailako ikasketak dituztenen ehunekoa, emakumeen % 20 ingurukoa adin-talde bakoitzean. Ratorik txikiena 45-54 urtekoen taldeari dagokio (% 14,2).
- Nabarmentzekoa da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeek 65-74 urteko emakumeen taldean duten pisua (% 57,3). Ekarpen hori, argi eta garbi, gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala (55-64 tartean % 35,1, 45-54 tartean % 22,4 eta 35-44 tartean % 12,0), eta talderik gazteenean du pisurik txikiena (% 5,0; 25-34 urte).
- Azkenik, emakumeen % 5ek baino gutxiagok dituzte lehen mailako ikasketak baino baxuagoak, eta maila hori dutenen ratorik handiena 65-74 urtekoen taldean dago (% 3,4).

4. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila adinaren arabera. 2020

25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Ikasketa maila						
Lehen mailatik behera	1,8	1,0	0,7	1,0	3,4	1,5
Lehen mailakoak	5,0	12,0	22,4	35,1	57,3	26,7
Bigarren mailakoak	19,2	19,2	14,2	17,8	19,7	17,8
Lanbide-heziketa	21,5	20,5	25,4	20,7	8,8	19,7
Erdi-goi /goi-mailakoak	52,5	47,4	37,4	25,3	10,8	34,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza


Emakumezkoen presentzia handiagoa hezkuntza maila altuetan

Atxikitako grafikoez Gipuzkoako biztanleria helduak eskuratutako ikasketa maila erakusten dute, generoaren eta adin-tartearen arabera. Ikus daitekeenez:

- Hezkuntza orokorra: gizonzkoen presentzia gailentzen da. Gizonzkoak erdiak baino gehiago dira 25-34 urtekoen taldean (% 53,4), 35-44 urtekoen taldean (% 55,8) eta 45-54 urtekoen taldean (% 52,9). Aitzitik, emakumezkoen ehunekoa nabarmentzen da prestakuntza hori duten 55-64 urtekoen taldean (% 53,0) eta 65-74 urtekoen taldean (% 58,7).
- Lanbide Heziketa: gizonzkoen kolektiboak pisu handiagoa du. Izan ere, prestakuntza maila hau duten biztanleen erdiak baino gehiago gizonak dira adin-talde guztietan. Gainera, bi heren dira talde hauetan: 25-34 urte (% 62,6) eta 65-74 urte (% 69,3).
- Goi-mailako eta erdi-goi mailako ikasketak: emakumeen presentzia gailentzen da, bereziki, talde gazteenetan (25-34 tartean % 59,4 eta 35-44 tartean % 61,1). Eta, pertsonen prestakuntzaren ibilbide historikoaren arabera, gizonzkoen kolektiboaren pisua handiagoa da adin altuagokoaren taldean (65-74 urtekoen tartean, % 58,8).

2. grafikoa Ikasketa orokorrak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2020


ikasketa orokorrak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

3. grafikoa Lanbide-heziketa duten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2020


lanbide-heziketa duten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

4. grafikoa Goi-mailako eta erdi-go mailako ikasketak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2020

goi-mailako eta erdi-go mailako ikasketak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera

3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia

Pertsonen prestakuntzari buruzko eta haien lan-ibilbidearekin lotzen dituen prestakuntzari buruzko hiru informazio-bloke jasotzen ditu kapitulu honek.

- Hezkuntzaren uzte goiztiarraren azterketa⁴ da abiapuntua, pertsonen prestakuntza-ibilbidean izandako jarraitutasunaren adierazle gisa: hala, eskolako uzte-tasa zenbat eta txikiagoa izan, esan nahi du orduan eta handiagoa dela prestatzen jarraitzen duten pertsonen proportzioa.
- Bestetik, orain dela gutxi Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten pertsonen lan-egoeraren emaitzak aurkezten dira. EAEko Lanbide Heziketako zentroen sarean 2019an ikasketak amaitutakoen promozioari buruzkoak dira eskuragarri dauden azken datuak, eta promozio horrek 2020ko abenduan zuen lan-egoera jasotzen du.
- Euskal unibertsitateetan (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) ikasketak amaitu dituzten pertsonen buruz jasotako informazioarekin osatzen dira emaitza horiek. Zehazki, 2017ko promozioan ikasketak amaitu zituzten ikasleek 2020ko abenduan zuten lan-egoera jasotzen da.

Emakumeen egoera aurkeztea da helburua, haien prestakuntzari eta enpleguari dagokienez: hala, emakumeek eskuratutako hezkuntza maila asko hobetu den arren, alde handiak ikusten dira aukeratutako ezagutza arloari dagokienez (emakumeen eta gizonen artean), eta horrek haien lan-ibilbideari eragiten dio –beste faktore batzuek gain–.

⁴ Informazioa EAeri dagokio, baina Gipuzkoako egoeraren erakusle ere izango litzateke.


3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra

Uzte-tasak berriro egin du behera, eta antzekoa da emakumeen eta gizonen artean

Hezkuntzaren uzte-tasak⁵ Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (DBHko 4. maila, batxilergoa, Lanbide Heziketa oinarrizkoa eta/edo erdi-mailakoa) burutu ez, eta araututako hezkuntza-prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen (18-24 urtekoak) ehunekoa erakusten du. Adierazle horrek EAEn⁶ izandako bilakaera honako hau da:

- 2021ean % 4,8koa izan da hezkuntzaren uzte-tasa, kontuan hartutako urte guztien artean baxuena, eta 2011n erregistratutako ehunekoa baino ia 10 puntu baxuagoa.
- Emakumeen eta gizonen artean erregistratutako hezkuntzaren uzte-tasa antzekoa da (% 4,9 eta % 4,7 hurrenez hurren). Egoera hori desberdina da aurreko urteekiko, emakumeen artean baxuagoa baitzen uzte-tasa hori.
- Hala, erregistratutako jaitziera eta bi kolektiboaren arteko arrakalaren murrizketa zuhurtziaz hartu behar dira, 2021. urtea asko baldintzatu baitu bizitako egoerak.

5. grafikoa Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

⁵ Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

⁶ Gipuzkoako informazioa ez dago eskuragarri, baina Lurraldeko egoeraren isla litzateke.

Aintzat hartutako eremu guztietan (EAE, Estatua, EB-27) nabarmen hobetu da adierazle hau, baina EAEko emaitza (% 4,8) baxuagoa da Estatukoa (% 13,3) eta EB-27koa (% 9,9; 2020ko datua) baino. Gainera, hiru eremuetan gizonetzkoen emaitzak okerragoak dira eta nahiko egonkor mantentzen dira. Dena den, 2021ean emaitza horiek berdindu egin ziren EAEn (+0,2 puntu), eta apur bat gehiago gerturatu ziren Estatuan (-7,0 puntu).

5. taula Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE-Estatua-EB27

18-24 urteko herritarren %

		2011-2014	2015-2019	2020	2021
EAE	Guztira	11,4	7,7	6,5	4,8
	Emakumea	9,9	5,3	4,3	4,9
	Gizona	12,9	9,9	8,5	4,7
Estatua	Guztira	24,1	18,5	16,0	13,3
	Emakumea	19,9	14,5	11,6	9,7
	Gizona	28,2	22,4	20,2	16,7
EB-27*	Guztira	12,2	10,6	9,9	--
	Emakumea	10,3	8,9	8,0	--
	Gizona	14,0	12,1	11,8	--


*Txosten hau egiteko unean 2020koa da eskuragarri dagoen azken datua.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta LH Ministerioa

Azkenik, EAEk dagoeneko betetzen du % 9tik beherako uzte-tasa izateko helburua (EB-27ren helburua 2030erako), eta aintzat hartutako erreferentziazko herrialdeek baino emaitza hobearekin (ibilbideari eta emaitza berrienari dagokienez).

6. grafikoa Emakumeen eskolako uzte-tasaren bilakaera eta erreferentziazko herrialdeak*

18-24 urteko emakumeen %



*Txosten hau egiteko unean 2020koa da eskuragarri dagoen azken datua.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta LH Ministerioa

3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak

Emakumeen presentziak gora egin du LHn, baina alde nabarmenak daude familia profesionalaren arabera

Atxikitako informazioak erakusten du Lanbide Heziketako ikasketak amaitu zituzten pertsonen kopurua (batez beste) 2011-2014, 2015-2018 eta 2019 aldian. Nabarmentzeko lehen emaitza zera da, Lanbide Heziketako prestakuntza jaso duten pertsonak gero eta gehiago direla; 2019an 13.034 pertsonak amaitu zuten LH.

Horietatik ia 5.000⁷ emakumeak izan ziren, eta horrek baieztatu egin lezake emakumeek prestakuntza-aukera honetan duten presentzia sendotu izana. Dena den, ikasketak amaitu zituzten hamar pertsonatik lau dira, eta proportzioa apurka behera egiten ari da (% 43,5etik % 38,0ra jaitsi zen 2019an).

6. taula LH eta generoa EAEn, ikasketak amaitutako ikasurtearen arabera

	emakumeen %		
	2011-2014	2015-2018	2019
Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleak			
Ikasketak amaitu dituzten ikasleak, guztira	10.142	10.987	13.034
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak	4.407	4.415	4.956
emakumeen %	43,5	40,2	38,0

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

Emaitza orokor hori asko aldatzen da familia profesionalaren arabera, izan ere:

- 8 familiatan, ikasketak amaitu dituzten ikasleen erdiak baino gehiago dira emakumeak. Zehazki, Kimikan (% 56,0), Elikagaien industrian (% 59,7), Administrazioan (% 64,4), Turismoan (% 69,0), Osasunean (% 76,9), Komunitateari zuzendutako gizarte eta kultura arloko zerbitzuetan (% 78,7), eta, batez ere, Ehungintza, jantzigintza eta larrugintzan (% 92,7) eta Irudi pertsonalean (% 92,9).
- Bestetik, 7 familia profesionaletan emakumeen presentzia % 10etik beherakoa da. Hauek dira: Informatika (% 9,5), Fabrikazio mekanikoa (% 7), Instalazioa eta mantentze-lanak (% 5,6), Elektrizitatea eta elektronika (% 4,8), Energia eta ura (% 3,8), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 2,9) eta Arrantza (% 2,5).

⁷Informazioa EAEn dagokio; Gipuzkoako informazioa ez dago eskuragarri.

Emitza horiek erakusten dutenez, ziklo batzuk feminizatuta daude (tradizioz), hain zuzen ere, zerbitzuen sektoreko lanbideekin lotura handia dutenak (genero-rolak). Industria arloko (batez besteko soldata eta/edo lan-baldintza hobeeekin) eta lehen sektoreko familietan, berriz, emakumeen presentziak oso txikia izaten jarraitzen du, eta askotan, hondarrekoa baino ez da.

7. taula Emakumeak LHko familia profesionaletan, ikasketak amaitutako ikasturtearen arabera. EAE

emakumeen %

	2011-2014	2015-2018	2019
Familia profesionalak; emakumeen %			
<i>Irudi pertsonala</i>	97,4	97,0	92,9
<i>Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza</i>	90,8	85,2	92,7
<i>Gizarte eta kultura arloko zerbitzuak</i>	85,4	81,3	78,7
<i>Osasuna</i>	83,1	78,9	76,9
<i>Turismoa</i>	73,2	72,5	69,0
<i>Administrazioa</i>	74,3	65,3	64,4
<i>Elikagaien industria</i>	48,1	60,0	59,7
<i>Kimika</i>	58,9	52,7	56,0
Segurtasuna eta ingurumena	40,0	36,4	45,8
Merkataritza eta marketina	54,7	54,7	49,4
Arte grafikoak	52,9	48,5	44,4
Eraikuntza eta obra zibila	29,5	35,4	35,6
Ostalaritza	32,3	33,4	34,9
Komunikazioa, irudia eta soinua	35,3	30,4	26,9
Egurra eta altzariak	6,6	7,0	24,7
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	20,2	20,4	24,6
Nekazaritzako jarduerak	18,7	18,3	20,6
Informatika	13,6	10,8	9,5
Fabrikazio mekanikoa	6,7	7,0	7,0
Instalazioa eta mantentze-lanak	4,8	3,7	5,6
Elektrizitatea eta elektronika	4,8	4,7	4,8
Energia eta ura	8,3	11,1	3,8
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	2,7	2,4	2,9
Itsasoko jarduerak eta arrantza-jarduerak	6,5	3,3	2,5

Iturria: EAE n Lanbide Heziketatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

Enplegarritasun-adierazle orokorrak antzekoak emakumeen eta gizonen artean

Lanbide Heziketako ikasketak amaitu eta handik urtebetera (2020ko abenduan) pertsona horiek zuten lan-egoera erakusten dute enplegarritasunari buruzko adierazleek. Generoaren arabera alderaketak hau erakusten du:

- Jarduera-tasa apur bat altuagoa da emakumeen artean (% 65,0, eta gizonen kasuan % 63,8), eta nahiko egonkor mantentzen da kontuan hartutako aldian.
- Okupazio-tasa antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (% 78,7 eta 78,4), eta bi kolektiboek hobera egin dute 2011 eta 2019 artean.
- Eta langabezia-tasa asko jaitsi da azken hamarkadan, bi kolektiboen kasuan % 21 inguruan kokatu arte. Dena den, tasak adierazgarria izaten jarraitzen du (oraindik ere).

8. taula Lan-munduratzeari euskarri ematen duen Lanbide Heziketatik, generoaren arabera

	Urte hauetan ikasketak amaitu dituzten pertsonak:		
	2011-2014	2014-2018	2019
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak			
Jarduera-tasa	65,9	66,5	65,0
Okupazio-tasa	65,3	77,5	78,7
Langabezia-tasa	34,7	22,5	21,3
Ikasketak amaitu dituzten gizonak			
Jarduera-tasa	61,3	66,1	63,8
Okupazio-tasa	63,3	80,4	78,4
Langabezia-tasa	36,7	19,6	21,6

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

Baina adierazle orokor hauek erakusten dutenez, alde handia dago familia profesionalen artean: hala, okupazio-tasarik altuenak osasun arloko (emakumeen presentzia altua) eta industria arloko familiei (emakumeen presentzia baxua) dagozkie; zerbitzu mailako profila duten lanpostuetan (emakumeen presentzia handia), berriz, okupazio-tasa batez besteko balio orokorra baino baxuagoa da.

9. taula Okupazio-tasa altuenak eta baxuenak dituzten Lanbide Heziketako familia profesionalak, eta emakumeek horietan duten presentzia. 2020

Familia profesionalak...			
Okupazio-tasa altuenekin	Emak. %	Okupazio-tasa baxuenekin	Emak. %
Energia eta ura (% 88,9)	3,8	Elikagaien industria (% 59,7)	59,7
Jard. fisikoa eta kirola (% 86,9)	24,6	Egurra eta altzariak (% 24,7)	24,7
Garraioa, ibilg. mantenua (% 85,9)	2,9	Kimika (% 56,0)	56,0
Osasuna (% 85,0)	76,9	Arte grafikoak (% 44,4)	44,4
Instalazioa eta mantenua (% 84,3)	5,6	Irudi pertsonala (% 92,9)	92,9
Itsasoko eta arrantza-jard. (% 83,5)	2,5	Ehungintza, jantzigintza (% 92,7)	92,7
Informatika (% 83,2)	9,5	Turismoa (% 69,0)	69,0
Nekazaritzako jarduerak (% 80,2)	20,6	Segurtasuna-ingurumena (% 45,8)	45,8
Elektrizitatea-elektronika (% 78,6)	4,8	Komunik., irudia-soinua (% 26,9)	26,9

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak

Emakumeen presentzia handia euskal unibertsitateetan, arlo teknikoan izan ezik

2017ko promozioan 4.788 emakumek amaitu zituzten ikasketak Euskadiko unibertsitateetan. Hala, aztertutako aldian, pisu nabarmena mantendu dute emakumeek (% 58,0). Dena den, unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten pertsonen kopuruak behera egin du apur bat; izan ere, belaunaldi hauetan pertsona gutxiago daude aurrekoetan baino, eta Lanbide Heziketaren aukera gora egiten ari da, unibertsitatearen alternatiba gisa, beste faktore batzuen artean.

Ikasketak amaitu dituzten ikasleen erdiak baino gehiago emakumeak dira ia ezagutza arlo guztietan, hala nola, osasuna (% 76,9), gizarte-zientziak (% 69,0), giza zientziak (% 66,5), zientzia esperimentalak (% 59,9) eta eremu ekonomiko-juridikoa (% 56,5). Baina emakumeen ekarpena % 27,4ra jaisten da ikasketa teknikoetan (ingeniaritza, arkitektura, informatika, etab.), eta beheranzko joerarekin⁸.

10. taula Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitu dituzten pertsonak eta emakumeen presentzia

	2012-2013	2014-2016	2017
Unibertsitate-ikask. amaitu dituzten ikasleak			
Ikasleak, guztira	9.563	9.101	8.255
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak	5.547	5.188	4.788
emakumeen %	58,0	57,0	58,0
Familia profesionalak; emakumeen %			
Osasuna	78,5	77,0	76,9
Sozialak	74,5	72,6	69,0
Giza zientziak	70,2	66,9	66,5
Esperimentalak	63,1	60,4	59,9
Ekonomiko-juridikoak	58,4	55,8	56,5
Teknikoak	31,1	30,6	27,4

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

Emitza horiek erakusten dutenez, genero-estereotipoen eragin posiblea gailentzen da. Horrek gazteen ikasketa-aukerak baldintza ditzake, eta, ondorioz, emakumeen presentzia txikiagoa da arlo zientifiko-teknologikoetan⁹.

⁸ Garrantzirik kendu gabe, joera hori orokorra da (herrialde garatuetan); "gero eta neska gutxiagok" aukeratzen dituzte STEM alternatibak.

⁹ Salbuespenak daude: emakumeak gehiengo dira bio-ingeniaritzetan.

Enplegarritasunaren adierazleak antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean

Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitu dituzten emakumeen eta gizonen lan-egoerari dagokionez, bi taldeen emaitzak antzekoak dira. Eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera (2017ko promozioa), 2020ko abenduan duten lan-egoera:


- Pertsonen % 93 lanean ari dira eta/edo modu aktiboan ari dira lan bila, emakumeei zein gizonei dagokienez.
- Pertsonen % 87k ordaindutako enplegua du, eta adierazle horrek azken urteetan erregistratutako hobekuntza-joera erakusten du.
- Baina langabezia-tasa apur bat igo da, % 13ra; emaitza hori lotuta egon daiteke Covid-19ak sortutako krisiaren inaktuarekin.
- Azkenik, nabarmentzekoa da okupazio-tasa nabarmen aldatzen dela ezagutza arloen artean. Tasa altua da tekniko eta osasun arloko langileen artean, eta erregistrorik baxuenak giza zientziei dagozkie.

11. taula Lan-munduratzeari buruzko inkesta, generoaren arabera

	2012-2013	2014-2016	2017
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak			
Jarduera-tasa	92,4	93,4	93,0
Okupazio-tasa	75,3	84,3	87,0
Langabezia-tasa	18,6	9,9	13,0
Ikasketak amaitu dituzten gizonak			
Jarduera-tasa	93,6	94,5	93,0
Okupazio-tasa	79,6	85,4	87,0
Langabezia-tasa	15,0	9,1	13,0

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

7. grafikoa Okupazio-tasa, familia profesionalen arabera. 2020



Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko inkesta. Lanbide

4. Emakumea eta bizitza osoko ikaskuntza

4.1. Bizitza osoko ikaskuntzaren definizioak

Bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuak jarduera ugari biltzen ditu, besteak beste, pertsonen egunerokotasunean eta bizitzako arlo guztietan, arlo zibiko, sozial edo profesionalen, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko egindakoak. Beraz, bizitza osoko ikaskuntzak bat egiten du pertsonen gaitzea mantentzearen helburuarekin, eta aldi berean, pertsonen bizitzako alderdi guztietara ezagutza eta jakin-mina zabaltzen du. Hori horrela, honako ikaskuntza-tipologia hauek barne hartzen dira:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).

Etengabeko ikaskuntzaren kontzeptuak ikaskuntza formalari eta ez-formalari egiten die erreferentzia, bi adierarekin:

- Bizitza osoko ikaskuntza: azken 12 hilabeteetan egindako ikasketa-jarduerei egiten die erreferentzia.
- Ikaskuntza jarraitua eta/edo ohikoa: azken 4 asteetan egindako ikasketa gisa ulertuta.

4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan

Gipuzkoako hamar emakume heldutatik lau ikasten ari dira

Gipuzkoako emakume helduek (25-74 urte) bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeak erakusten duenez, 2021ean emakumeen % 40 inguruk ikasi zuten; proportzio hori egonkor mantentzen da.

Nolanahi ere, aldeak nabarmenak dira egindako ikaskuntza motari dagokionez. Emakumeen heren batek adierazi du modu ez-formalean ikasi duela (% 31,0), eta ehuneko hori hamarretik batera murrizten da ikaskuntza formalari dagokionez (% 11,3). Bestetik, aipatzekoa da emakumeen % 16,0k adierazi dutela kontsulta egin aurreko lau asteetan ikasi egin dutela.

Azkenik, kontuan izan behar da kontsulta hau urte bakoitzeko otsailean egiten dela. Hortaz, 2020ko martxoaren 14an Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz ezarritako alarma-egoeraren eraginek ez zituzten baldintzatu 2020ko emaitzak.

Dena den, 2021eko emaitzetan oraindik ere nabari da pandemiaren kudeaketaren inpaktua, nabarmen mugatu baitziren aurrez aurreko jarduerak egiteko aukerak. Prestakuntza- eta gaikuntza-jardueraren zati handi bat urruneko formatuetara eraman den arren¹⁰, oso zaila izan da ikaskuntza-jarduerak mantentzea.

12. taula Emakumeak eta bizitza osoko ikaskuntza. 2018-2021

baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	2018	2019	2020	2021
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)	39,5	41,7	42,4	38,3
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	17,6	20,8	13,9	16,0
Ikasketa formala	9,5	10,2	9,9	11,3
Ikasketa ez-formala	37,7	36,7	35,2	31,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

¹⁰ [Tele-ikastea: ibilbidea eta azkenaldiko esperientzia](#)

Ikaskuntzako parte-hartzea jaitsi egiten da adinak gora egin ahala

Adina faktore erabakigarria da bizitza osoko ikaskuntzan izandako parte-hartzeari dagokionez. Pertsonak adinean gora egin ahala, presentziak behera egiten du:

- Emakume gazteek (25-34 urte) dute parte-hartzearen tasarik altuena etengabeko ikaskuntzan (% 64,6), eta proportzio hori pixkana murrizten doa hurrengo adin-taldeetan; adin nagusieneko emakumeen artean erregistratzen da baliorik baxuena (65-74 tartean, % 12,3).
- Joera bera ikusten da ikaskuntza jarraituaren kasuan. Emakumeen partaidetza % 35,4koa da talde gazteenaren kasuan (25-34 urte), eta % 3,1era arte jaisten da adin nagusieneko taldean (65-74 urte).
- Ikaskuntza formalaren eta ez-formalaren modalitateetan ere profil hori ematen da, eta emakumeek adinean gora egin ahala, orduan eta baxuagoa da ikaskuntzan duten parte-hartzea.

13., taula Emakumeak eta bizitza osoko ikaskuntza, adinaren arabera. 2021

baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)	64,6	50,0	35,3	27,1	12,3
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	35,4	16,0	11,8	15,3	3,1
Ikasketa formala	29,2	13,0	8,2	4,7	3,1
Ikasketa ez-formala	47,7	39,0	32,9	23,5	9,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Motibazio profesionalak eta personalak, oso orekatuta, baina adinaren arabeko alde handiekin

Emakumeen % 52,6k adierazi dute arrazoi pertsonalengatik ikasi dutela, eta arrazoi profesionalen pisua apur bat baxuagoa da (% 47,4). Banaketa hau apur bat ezberdina da aurreko urteetakoekin alderatuta; orduan arrazoi profesionalak gailentzen baitziren ikasteko arrazoi nagusi gisa.

Azken urteak ezohikoak izan direnez (2020 eta 2021), 2021eko emaitzak zuhurtiaz hartzea eta datorren urteetako emaitzei itxarotea gomendatzen da, ikasteko arrazoiak benetan aldatu diren baieztatu ahal izateko.

Bestetik, desberdintasun handiak ikusten dira adinaren arabera. Izan ere, adin-talde bakoitzak lan-merkatuan duen parte-hartze maila ezberdina da. Hala,

- 44 urtera arte, arrazoi profesionalak gailentzen dira ikasteko arrazoi nagusi gisa, batez ere, 35-44 adin-tartean (% 84,6).
- 45 urtetik aurrera, arrazoi pertsonalek garrantzia hartzen dute eta 55-64 eta 65-74 adin-tarteetako emakumeek aipatutako arrazoi bakarra da; izan ere, horiek lan-merkatuan duten parte-hartzea gutxitu egiten da (erretiroa edo aurreko etapak barne hartzen ditu).

14. taula Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak. 2018-2021


ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	2018	2019	2020	2021
Arrazoi profesionalak	66,2	53,3	56,7	47,4
Arrazoi pertsonalak	33,8	46,7	43,3	52,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

8. grafikoa Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak, adinaren arabera. 2021

ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.3. Ez ikasteko arrazoiak

Familiako erantzukizunak, ikasteko oztopo nagusia emakumeen artean

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten emakumeek adierazi dute hauek izan direla ikasi ez izanaren arrazoiak:

- Emakumeen heren batek (% 32,0) familiako erantzukizunak aipatu ditu ikasteko oztopo nagusi gisa, baina arrazoi horren pisua jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta.
- Bestetik, ikasteko motibazioa falta zaiela dioten emakumeen proportzioak gora egin du (% 27,5). Baliteke emaitza horrek zerikusia izatea pandemiak eguneroko bizimoduan izandako inpaktuarekin (aurrez aurreko ikasketak egiteko zailtasuna, gogo-aldatea eta egoera emozionala, etab.).
- Bost emakumetik batek (% 23,9), gutxi gorabehera, ez duela prestakuntzarik behar esan du. Prestakuntza laneko ordutegiarekin bateragarria ez izatea (% 21,9) eta ikasteko helduegi sentitzea (% 20,6) ere aipatu dituzte ez ikasteko arrazoiaren artean.
- Badirudi prestakuntzaren kostuak ez duela neurri handian oztopatzen ikaskuntza. Izan ere, azken urtean ikasi ez duten hamar emakumetik batek aipatu du arrazoi hori (% 13,0).
- 2021ean jasotako erantzunak dezente aldatu dira aurreko urteekin alderatuta: posible da bizitako ezohiko egoeraren ondorioz izatea; hortaz, datozen urteetan (normaltasunera itzultzean) zer gertatzen den ikusi behar da, erantzunak aldatu diren ala ez baieztatzeko.

15. taula Emakumeek ez ikasteko aipatu dituzten arrazoiak. 2018-2021

baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	2018	2019	2020	2021
Familia-erantzukizunak ez didate uzten	45,5	42,1	44,8	32,0
Motibaziorik ez dut	31,1	22,1	21,1	27,5
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	12,3	8,5	9,5	23,9
Prestakuntza-ordutegia ez bateragarria lanarekin	29,4	35,7	33,6	21,9
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	17,9	10,2	10,3	20,6
Garestia da, ezin dut ordaindu	14,0	5,5	7,8	13,0

Hainbat erantzun

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ez ikasteko aipatutako arrazoiak aldatu egiten dira emakumeen adinaren arabera

Kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko emakumeek aipatutako arrazoiak jasotzen ditu atxikitako taulak; kontsulta egin zen unea kontuan hartuta, gutxi gorabehera, 2020ari dagozkio erantzunak. Lortutako emaitzak behar den zuhurtziarekin aztertuta, ikus daiteke ez ikasteko arrazoiak nabarmen aldatzen direla emakumeen adinaren arabera:

- Emakume gazteenen artean (25-34 urte eta 35-44 urte), hauek dira bi argudio nagusiak: prestakuntzaren ordutegia laneko ordutegiarekin bateragarria ez izatea (% 56,5 eta % 28,0) eta familiako erantzukizunak (% 39,1 eta % 46,0).
- Tarteko adina duten emakumeek (45-54 urte) familiako erantzukizunak aipatzen dituzte (% 38,2) eta, ondoren, motibazio-falta (% 32,7).
- Adin nagusieneko emakumeen bi taldeetan areagotu egiten da ikasteko adinik ez dutela aipatzen dutenen kopurua (% 35,5 eta % 33,3), eta aipatutako arrazoi nagusia da.

Azkenik, proposatutako sei argudioak bi multzotan bana daitezke. Batetik, “kanpoko faktoreak”, hala nola familiako erantzukizunak, ordutegiak bateragarriak ez izatea eta kostua. Eta, bestetik, “pertsonalak”, hala nola adinaren pertzepzioa, eskuratu beharreko ezagutzen pertzepzioa eta/edo motibazioa. Adin-talde bakoitzaren batez besteko emaitzak aintzat hartuta, garbi ikusten da 44 urtera arte “kanpoko” oztopoak gailentzen direla eta, “tarteko adinetik” (45 urtetik 54 urtera) aurrera, arrazoi pertsonalak gailentzen direla.

16. taula Emakumeek ez ikasteko dituzten arrazoiak, adin-taldearen arabera. 2021

baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	39,1	46,0	38,2	24,2	19,3
Prestak.-ordutegia ez bateragarria lanarekin	56,5	28,0	21,8	14,5	10,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	21,7	12,0	10,9	8,1	17,5
Batez besteko balioa – kanpoko arrazoiak	39,1	28,7	23,6	15,6	15,8
Motibaziorik ez dut	30,4	10,0	32,7	37,1	26,3
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	21,7	18,0	25,5	24,2	28,1
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	17,4	8,0	3,6	35,5	33,3
Batez besteko balioa – barne-arrazoiak	23,2	12,0	20,6	32,3	29,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.4. Emakumeen eta gizonen posizioa, alderatuta

Emakumeek parte-hartze handiagoa dute ikaskuntzan gizonek baino

Gipuzkoako emakume helduek bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzea, orokorrean, gizonena baino handiagoa da:

- Emakumeen % 38,3k eta gizonen % 37,8k ikasi dute azken urtean, hortaz, tasa oso antzekoa da (aurreko urteetan ez zen hori gertatzen; kontuan hartu behar da une honen ezohikotasuna).
- Hala ere, ikaskuntza jarraituan izandako parte-hartzea handiagoa izan da emakumeen artean, gizonen artean baino (% 16,0 emakumeek eta % 12,8 gizonek).
- Ikasketa-modalitateari dagokionez, emakumeek eta gizonek parte-hartze tasa antzekoak erregistratu dituzte ikaskuntza ez-formalean (% 32,5 eta % 31,0). Ikaskuntza formalean, berriz, emakumeen parte-hartzea handiagoa da (% 11,3, eta gizonena % 8,3).

17. taula Parte-hartzea bizitza osoko ikaskuntzan, generoaren arabera. 2021

25-74 urteko herritarren %

	Emakumea	Gizona	Aldea
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilabeteak)	38,3	37,8	+0,5
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 hilabeteak)	16,0	12,8	+3,2
Ikasketa formala	11,3	8,3	+3,0
Ikasketa ez-formala	31,0	32,5	-1,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Genero-arrakala, familiako erantzukizunak ikasteko oztopo gisa

Azkenik, azken urtean ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko aipatutako arrazoiei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- 25 eta 74 urteko emakumeen eta gizonen emaitza erlatiboak dagokienez, esan daiteke ez dagoela erabakigarria den eta guztiei eragiten dien arrazoirik. Izan ere, ikastearen kostuari dagokion arrazoa izan ezik (hamar emakume edo gizonen artetik batek aipatu du), gainerako oztopo guztiak hamar pertsonatik 2k edo 3k aipatu dituzte.

- Dena den, pertsonen ia heren batek, izan emakume edo gizon, motibazio pertsonala falta zaiola adierazi du ez ikasteko arrazoi nagusi gisa (% 27,5 eta % 27,3, hurrenez hurren).
- Eta, bestetik, desberdintasun nagusia familiako erantzukizunei dagokie. Emakumeen artean oztopo nagusia da (% 32,0), baina ez da hain esanguratsua gizonen artean (% 23,3).
- Azkenik, berriro ere une honen ezohikotasuna azpimarratu behar da. Izan ere, ezohikotasun honek baldintzatu egin ditzake ikasteko arrazoiak eta pertsonen hautemandako oztopoak, ez ikastea eragin dienak.

18. taula Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. 2021

ikasi ez duen 25-74 urteko herritarren %

	Emakumea	Gizona	Aldea
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	32,0	23,3	8,7
Prestak.-ordutegia ez bateragarria lanarekin	21,9	24,5	-2,6
Garestia da, ezin dut ordaindu	13,0	13,3	-0,3
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	20,6	20,5	0,1
Motibaziorik ez dut	27,5	27,3	0,2
Ez dut behar, ezagutza nahikoa	23,9	24,1	-0,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

5. Ondorioak

5.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Hauek dira Gipuzkoako emakumeen talentuari buruz eta emakumeek prestakuntzan eta bizitza osoko ikaskuntzan duten parte-hartzeari buruz egindako azterketaren indar-ideia nagusiak.

Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza etengabe hobetzen ari da

- 2020an, Gipuzkoako emakume helduen (25-74 urte) herenak goi-mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituzte, eta hamarretik bik Lanbide Heziketa egin dute. Hala, emakumeen erdiek baino apur bat gehiagok (% 54,0) ikasketa espezializatuak dituztela ondoriozta daiteke. Proporzio hori nabarmen hazi da 2010etik (+11,3 puntu).
- Adinaren faktorea oso adierazgarria da eta belaunaldi gazteenek ikasketa maila handiagoa dutela ikusten da: 25-34 urteko lau emakumetatik hiru espezializatu egin dira (% 74,0), eta 65-74 urteko emakume gehienek ikasketa orokorrak dituzte (% 80,4).
- Generoaren arabera alderaketak erakusten du gizonen kolektiboak pisu handiagoa duela hezkuntza orokorrean eta profesionalean, eta aldiz, emakumeen kolektiboa nagusitzen dela hezkuntza maila gorenean (goi-mailako eta erdi-goi mailako hezkuntzan).

Eskuratutako prestakuntza, faktore gakoa emakumeen lan-egoeran

- Emakumeen eskolako uzte-tasak gutxieneko historikoa erregistratu du (% 4,9), eta Estatuko (% 9,7) eta EB-27ko (% 8,0) ratioa baino nabarmen baxuagoa da. Gainera, EAEk dagoeneko bete du EBk ezarritako helburua: 2030. urterako uzte-tasa % 9tik behera murriztea.

- Emakumeen presentzia handitu egin da LHn (guztizkoaren % 38,0), baina alde handiak daude familia profesionalaren arabera. Hortaz, baieztaatu egingo litzateke genero-estereotipoek ikasketak aukeratzeko orduan duten garrantzia.

Euskal unibertsitateetan presentzia handia dute emakumeek (guztizkoaren % 58,0), arlo teknikoan izan ezik; arlo horretan emakumeen ekarpena heren batera murrizten da (% 27,4).

Bi kolektiboek (LH edo unibertsitate-ikasketak) enplegarritasunaren antzeko adierazleak dituzte emakumeen eta gizonen artean.

Emakumeek modu “erregularrean” parte hartzen dute bizitza osoko ikaskuntzan

- Gipuzkoako hamar emakume heldutik lauk ikasten dute (% 38,3); proportzio hori sendotu egin da aurreko urteekin alderatuta.
- Emakume gazteak dira (25-34 urte) gehien ikasten dutenak (% 64,6), eta adin handiena dutenak (% 12,3; 65-74 urtekoak), aldiz, gutxien ikasten dutenak.
- Motibazio pertsonala da ikasteko arrazoi nagusia (% 52,6), baina alde handiak daude adinaren arabera, eta hori lotuta dago adin-talde bakoitzak enpleguan duen parte-hartzearekin.
- Familiako erantzukizunak dira ikasteko oztopo nagusia, baina genero-arrakala handia dago. Motibazio falta ere faktore oso garrantzitsua da emakumeen eta gizonen artean.

Gipuzkoa, gizarte aurreratua, pertsonen ezagutzan oinarritua

- Gizarte aurreratu gisa finkatu da Gipuzkoa, pertsonen prestakuntzan oinarritua: pertsonen erdiek baino gehiagok ibilbide esanguratsua egiten dute hezkuntza formalean; batez besteko ikasketa mailaren tasa gero eta handiagoa da, eta aipatzekoa da unibertsitaterako joera handiagoa dela emakumeen artean.
- Prestakuntzaren aukeraketa, oraindik ere, estereotipo batzuen arabera da. Hala, STEM eremuetan presentzia txikiagoa dute emakumeek, eta “pertsonen zaintzarekin” lotutako eremuan gailendu egiten dira.
- Helduek, emakumeek eta gizonak, ikaskuntza-jarduera adierazgarria mantentzen dute. Dena den, parte-hartze hau hobetzeko gakoa motibazio faltaren faktorea izan daiteke, esanguratsua baita adineko pertsonen artean, zahartzen ari den gizarte honetan.



Izenburua:	Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza 83. dokumentua, 2022ko martxo
Koordinazioa eta gainbegiraketa:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea	IKEI, research & consultancy S.A.
Informazio-iturriak	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua (GFA), Eustat, Lanbide eta Hezkuntza eta LHko Ministerioa.

